

1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

IMANOL LAGUN MINA

**Gaur astelehena da eta Shilinek etxetik
baloia ekarri du, gero jolastorduan futbolera
gelako lagunekin jolasteko.**

**Gutxitan jolasten du futbolera,
baina gero eta gehiago
gustatzen zaio kirola egitea.**

**-Egunon, Shilin! Zer? Baloia
ekarri duzu?- esaten dio
Imanolek.**



**-Kaixo, Imanol! Bai, futbolera jolasteko
ekarri dut.-erantzuten dio Shilinek.**

**-Oso ondo. Taldeak antolatuko ditugu eta ni zure taldean egongo naiz, ezta?-
dio Imanolek.**

**-Bai, noski! Nire taldean egongo zara.-dio
Shilinek.**

Partidua amaitu eta gero, Shilin zoriontsu dago. Imanol ere pozik dago. Imanol Shilinen lagun mina da. Primeran pasatu dute!



2- AUKERATU ERANTZUN ZUZENA

1.- Gaur _____ da.

2.- Shilinek _____ ekarri du.

3.- Baloia _____ jolasteko da.

4.- Shilinen taldean _____ egongo da.

5.- Baloia _____ da.

3- AUKERATU EGIA EDO GEZURRA DEN.

Shilinek liburua ekarri du.

Imanol Shilinen taldean egongo da.

EGIA	GEZURRA

Shilin eta Imanol lagun handiak dira.

Partidua amaitzen denean triste daude.
